# 296 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

## ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

**1. mota: Aitortzailearen erregistroa:** identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena

**2. mota: Jasotzailearen erregistroa**. 2. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motakorako, erregistro bakarra egongo da eta, 2. motarako, berriz, aitorpenean sartutako aitortuak adina erregistro

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokatuko dira oro har, eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu guztiek izango dute edukia. edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetiko/alfanumerikoak zuriunez joango dira

Azaroaren 17ko 518/2019 Foru Aginduaren bidez eguneratuta (GAO 2019/11/21)

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# 291 EREDUA

## A 1. motako erregistroa:

## AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA**<br>«1» zenbaki konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA**<br>«291» konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA**<br>Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>Aitortzailearen IFZ jarriko da.<br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira |
| 18-57 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN SOZIETATE IZENA**<br>Sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe<br>Inoiz ere ez da jarri behar eremu honetan izen komertzialik. |
| 58 | Alfabetikoa | **EUSKARRI MOTA**<br>Gako hauetako bat jarriko da:<br>'C': informazioa CD-R batean (compact disk recordable) aurkezten bada<br>'D': Diskete bidez. |
| 59-107 | Alfanumerikoa | **HARREMANETARAKO PERTSONA**<br>Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da<br>59-67 TELEFONOA: 9 posizioko eremu numerikoa.<br>68-107 DEITURAK ETA IZENA: jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. |
| 108-120 | Numerikoa | **AITORPENAREN FROGAGIRI ZENBAKIA** |

| | | |
|---|---|---|
| **121-122** | **Alfabetikoa** | **AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA**<br>Aurkezten dena bigarren edo ondorengo aitorpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:<br><br>121 AITORPEN OSAGARRIA:<br>"C" jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren ordainketak sartzea bada<br><br>122 ORDEZKO AITORPENA:<br><br>"S" jarriko da, baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat baliogabetu eta erabat ordeztea bada. Aurreko aitorpen bat bakarrik deuseztatu dezake ordezko aitorpen batek. |
| **123-135** | **Numerikoa** | **AURREKO AITORPENAREN FROGAGIRI ZENBAKIA** |
| **136-144** | **Numerikoa** | **AITORTUEN ERREGISTRO KOPURUA, GUZTIRA**<br>Jarri zenbat aitortu jaso dituen guztira entitate aitortzaileak 2. motako xehetasun erregistroetan. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da. (2. motako erregistroen kopurua). |
| **145-162** | **Alfanumerikoa** | **BATURA OSOA**<br>18 posizioko eremu numerikoa.<br>Eremu hau bitan banatzen da:<br>145 ZEINUA: Eremu alfabetiko hau bete beharko da "Aitortutako diruzko ordainketen batura osoa" (1. motako erregistro honen 146tik 162ra arteko posizioak) lortzeko egiten den batuketaren emaitza 0 (zero) baino txikiagoa denean. Kasu honetan, "N" jarri behar da; beste edozein kasutan, aldiz, tarte bat izango da eremu honen edukia.<br>146-162 ZENBATEKOA: 17 posizioko eremu numerikoa<br><br>"Diruzko ordainketen zenbatekoa" eremuetan (aitortuen erregistroetako 133tik 146ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura osoa jarriko da hemen, koma hamartarrik gabe. Aitortuen erregistro hauetan "Diruzko ordainketen zenbatekoaren zeinua" eremua betetzean (2. motako erregistroaren 132 posizioa) "N" jarri bada, batura horretan adierazi beharreko zenbatekoak totalizatzerakoan zenbateko horiek minus zeinuarekin konputatuko dira.<br>Zenbatekoak eurotan jarri behar dira.<br>Eremu hau bitan banatzen da:<br>146-160 Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da<br>161-162: Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da |
| **163-179** | **Numerikoa** | **AITORTUTAKO GAUZAZKO ORDAINKETEN BATURA OSOA**<br>17 posizioko eremu numerikoa.<br>"Gauzazko ordainketen zenbatekoa" eremuetan (aitortuen erregistroetako 147tik 160ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura osoa jarriko da hemen, zeinurik eta koma hamartarrik gabe<br><br>Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.<br>Eremu hau bitan banatzen da: |

| | | |
|---|---|---|
| | | 163-177: Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da<br>178-179: Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da. |
| **180-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira.
* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

## 291 EREDUA

## B.- 2. Motako erregistroa

## AITORTUAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| **1** | **Numerikoa** | **ERREGISTRO MOTA**<br>2' zenbaki konstantea |
| **2-4** | **Numerikoa** | **AITORPEN EREDUA**<br>"291" konstantea. |
| **5-8** | **Numerikoa** | **EKITALDIA**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da |
| **9-17** | **Alfanumerikoa** | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| **18-26** | **Alfanumerikoa** | **AITORTUAREN IFZ**<br>Espainian emandako identifikazio fiskaleko zenbakiekin bakarrik bete behar da eremu hau.<br><br>Kontuan izanik ez-egoiliarren kontuak ez direla sartzen abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak onartutako zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 35 artikuluak aipatzen duen identifikazio erregimenean, eremu hau edukirik gabe joan daiteke (hutsuneak)<br><br>Dena den, aitortuak Espainian emandako IFZ jaso badu aipatutako erregalamenduak ezarritako erregelen arabera, eremu honetan IFZ jarriko da.<br><br>Aitortuak adingabeak edo ezgaituak badira eta IFZrik ez badute, eremu hau bete gabe utziko da. IFZ legezko ordezkariak duenean, orduan "Legezko ordezkariaren IFZ" eremua beteko da.<br><br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |

| | | |
|---|---|---|
| **27-35** | **Alfanumerikoa** | **LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ**<br>Espainian emandako identifikazio fiskaleko zenbakiekin bakarrik bete behar da eremu<br><br>Kontuan izanik ez-egoiliarren kontuak ez direla sartzen abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak onartutako zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 35 artikuluak aipatzen duen identifikazio erregimenean, eremu hau edukirik gabe joan daiteke (hutsuneak).<br><br>Aitortua adingabea edo ezgaitua bada eta bere legezko ordezkariak Espainian emandako IFZ jaso badu, legezko ordezkariaren IFZ jarriko da eremu honetan<br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| **37-75** | **Alfanumerikoa** | **AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA**<br>a) Pertsona fisikoak badira, lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa jarri behar dira, ordena horretan nahitaez. Aitortua adingabea edo ezgaitua bada, eremu honetan adingabearen edo ezgaituaren deiturak eta izena jarriko dira.<br><br>b). Pertsona juridikoak eta entitateak badira, entitatearen sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe. |
| **76** | **Alfabetikoa** | **NORTASUNAREN GAKOA**<br>Gako hauetako bat jarriko da aitortuaren arabera:<br><br>F Aitortua: pertsona fisikoa.<br>J Aitortua: pertsona juridikoa edo entitatea |
| **77** | **Numerikoa** | **EZ-EGOILIARRA IZATEA FROGATZEN DUEN AGIRIAREN GAKOA.**<br>Eremu honetan aitortua ez-egoiliarra dela frogatzeko entitate erregistratuari aurkeztu zaion agiria identifikatu behar da. Abenduaren 20ko 1816/1991 Errege Dekretuak, atzerriko transakzio ekonomikoei buruzkoak, 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera egongo da frogatuta ez-egoiliartasuna. Nolako agiria den, gako hauetako bat jarriko da:<br><br>1 Espainiako agintari kontsularrek pertsona fisiko espainiarrei emandako ziurtagiria<br><br>2 Egoitza ziurtagiri negatiboa, Barne Ministerioak atzerriko pertsona fisikoei emana.<br><br>3 Atzerrian helbideratuta dauden pertsona juridikoen izaera eta helbidea frogatzen dituen agiri fede-emailea<br><br>4 Kanpo Arazoetarako Ministerioak egindako identifikazio txartela, Espainian kreditaturik dauden atzerriko diplomatikoak eta Espainian kokatutako atzerriko Enbaxada eta Kontsulatuetan nahiz nazioarteko erakundeetan lan egiten duten atzerritarrak<br><br>5 Bestelakoak. |
| **78** | **Numerikoa** | **TITULARRAREN IDENTIFIKAZIO KODEAREN GAKOA**<br>“Titularraren identifikazio kodea” (79-98 posizioetan ageri dena) zein agiritatik datorren aintzat hartuz, gako hauetako bat jarriko da:<br><br>1 Pasaportea<br>2 Sorburuko herrian balio duen nortasun agiria.<br>3 Bestelakoa. |

**79-98** **Alfanumerikoa** **TITULARRARAREN IDENTIFIKAZIO KODEA**

"AITORTUAREN IFZ" eremua (18-26 posizioak) edukirik gabe joan daiteke (hutsuneak), kontuan hartuta ez-egoiliarren kontuak ez direla sartzen 2013ko abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga betebehar formal jakin batzuei buruzko Erregelamenduaren 35. artikuluan aipatzen den identifikazio araubidearen barruan. Dena den, entitate erregistratuek pasaporte zenbakia edo sorburuko herrian balio duen identifikazio zenbakia adierazi behar dute, kontua identifikatzeko, eta zenbaki hori eremu honetan jarriko da, hala jasotzen baitute 1991ko abenduaren 27ko Aginduak, atzerriko transakzio ekonomikoei buruzko abenduaren 20ko 1816/1991 Errege Dekretua garatzen duenak (abenduaren 31ko BOE) eta Espainiako Bankuak 2012ko otsailaren 29an emandako 1/2012 Zirkularrak (martxoaren 6ko BOE).

**99-100** **ZURIUNEAK**

**101** **Alfabetikoa** **AITORTUAREN GAKOA**

Gako hauetako bat jarriko da:

T Jabari osoaren titularra
O Jabetze soilaren titularra
U Usufruktuduna
B Bestelako onuraduna
A Baimendua

**102** **Numerikoa** **ALTAREN GAKOA**

Gako hauetako bat jarriko da:

0 Kontu zaharra
1 Aitortzen den ekitaldian alta emandako kontua
2 Aitortzen den ekitaldian deuseztatutako kontua.
3 Aitortzen den ekitaldian titularitatez aldatu den kontua, egoiliar baten esku geratu dena
4 Aitortzen den ekitaldian alta emandako eta deuseztatutako kontua.
5 Aitortzen den ekitaldian izaeraz aldatu den kontua, ezegoiliar batena izatera pasatu dena.

**103-105** **Numerikoa** **KONTUAREN TITULAR KOPURUA**

Kontuak guztira zenbat titular dituen jarriko da.

**106** **Numerikoa** **KONTU MOTA**

Gako hauetako bat jarriko da:

1 Kontu korronteak
2 Aurrezki kontuak
3 Epekako ezarpenak
4 Bestelako kontuak

**107** **Alfabetikoa** **KODE MOTAREN GAKOA**

Jarri gako hauetako bat kontuaren identifikazio motaren arabera:

C Kontua bezeroaren kontu kodearekin (BKK) identifikatzen da
O Beste identifikazio bat.

**108-111** **Alfanumerikoa** **IBAN KODEAREN AURRIZKIA**

Azpikode hau Espainiari esleitu zaion IBAN kodearen lehen lau posizioez osatuta dago (IBAN: kontu bankarioaren nazioarteko kodea).

Eremu hau bitan banatzen da:

108-109 HERRI KODEA (ISO): eremu alfabetiko honek ES balioa hartzen du.
110-111: KONTROL DIGITUA.

Banku jaulkitzaileak ez badio aitortzaileari entitatearen koderik eman eta, beraz, IBAN koderik ez badago, bete gabe utziko da eremu hau.

**112-131** **Alfanumerikoa** **KONTUAREN IDENTIFIKAZIOA**
Hauxe jarriko da:

1 - Kontua bezeroaren kontu kodearekin (BKK) identifikatzeko

112 - 115 Entitate kodea
116 - 119 Sukurtsalaren kodea
120 - 121 Kontrol digituak
122 - 131 Kontu zenbakia

2 - Banku jaulkitzaileak ez badio aitortzaileari entitatearen koderik eman, entitateak definitu duen barne identifikazioa adieraziko da.

**132-146** **Alfanumerikoa** **DIRUZKO ORDAINKETEN ZENBATEKOA**
Bakar-bakarrik aitortuak T, U edo B gakoa duenean (101 posizioa)

Eremu hau bitan banatuta dago:

132 ZEINUA: eremu alfabetikoa. Jarri «N» kontuaren etekina negatiboa denean. Beste edozein kasutan, eremu hau hutsune bat izango da.

133-146 ZENBATEKOA: 14 posizioko eremu numerikoa.

Eurotan exijigarri den zenbatekoa eta, dibisen kasuan, horien kontrabalioa koma hamartarrik gabe adieraziko da.

Eremu hau bitan banatuta dago:

133-144: Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
145-146: Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da

Kontuaren etekinak aitortu batek baino gehiago jasotzen dituenean, adierazi zein zenbateko egozten zaion bakoitzari etekinean duen partaidetza portzentajearen arabera.

Kontu batek ezarpen edota berriztapen bat baino gehiago izan baditu, etekinak erregistro bakarrean nahiz jasotzaile kopurua adinako erregistrotan metatuko dira.

Zenbateko honen barruan sartuko dira, baita ere, finantza-entitateetako kontuekin erlazionatutako sustapen komertzialetan parte hartzeko baldintzak ez betetzeagatik penalizazio gisa lortutako etekin negatiboak

**147-160** **Numerikoa** **GAUZA BIDEZKO ORDAINKETEN ZENBATEKOA**
Bakar-bakarrik aitortuak T, U edo B gakoa duenean (101) posizioa).

14 posizioko eremu numerikoa

| | | |
|---|---|---|
| | | Gauza bidez jasotako ordainketen balorazioa jarri behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe<br><br>Zenbatekoak eurotan jarri behar dira<br><br>Eremu hau bitan banatuta dago:<br><br>147-158: Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da.<br>159-160: Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.<br><br>Kontuaren etekinak aitortu batek baino gehiago jasotzen dituenean, adierazi zer zenbateko egozten zaion bakoitzari etekinean duen partaidetza portzentajearen arabera. |
| **161-165** | **Numerikoa** | **ETEKINEAN DUEN PARTAIDETZA PORTZENTAJEA**<br>Bakar-bakarrik aitortuak T, U edo B gakoa duenean (101) posizioa). Erregistroan aipatzen den jasotzaileak etekinean duen partaidetza portzentajea adiera behar da<br><br>Eremu hau bitan banatuta dago<br><br>161-163 Portzentajearen zati osoa adieraziko da (ez badu, zeroak jarri).<br><br>164-165 Portzentajearen zati hamartarra adieraziko da (ez badu, zeroak jarri). |
| **166** | **Numerikoa** | **ATXIKIPENAREN EDO KONTURAKO SARRERAREN ADIERAZLEA**<br>Ez zaie aplikatzen atxikipenik edo konturako sarrerarik ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe ez-egoiliarren kontuengatik lortutako etekinei, baldin eta entitate erregistratuei frogatzen badiete salbuetsiak izateko eskubidea dutela, ezegoiliarraren izaerari buruzko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuta.<br><br>Dokumentazio hori ez aurkezteak edo berritu gabe uzteak atxikipena edo konturako sarrera aplikatzea dakar.<br><br>Eremu honetan jarri behar den gakoak adieraziko du kontuko etekinek atxikipena edo konturako sarrerarik izan duten edo ez.<br><br>0 Ez dute izan atxikipenik edo konturako sarrerarik<br>1 Atxikipena edo konturako sarrera izan dute<br><br>"ATXIKIPENAREN EDO KONTURAKO SARRERAREN ADIERAZLEA" eremuan 1 jarri bada, 291 eredua aurkezteaz gainera (aitortu beharreko ekitaldi osoari buruzko informazioa jasotzen du eredu horrek), 296 ereduaren bitartez ere emango da atxikipenen eta konturako sarreren informazioa. |
| **167-174** | **Numerikoa** | **KONTUAREN IREKIERA DATA**<br>Bakar-bakarrik aitortuak A gakoa duenean (101 posizioa)Kontua 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ireki bada, ZER EGUNERTAN IREKI DEN jarri behar da. Urtearen lau digituak jarriko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra) eta egunaren bi digituak (01etik 31ra) UUUUHHEE formatuaren arabera<br><br>Kontua ireki den urtea aitortzen den urtea ez denean ere bete behar da eremu hau. |
| **175-182** | **Numerikoa** | **BAIMENA EMAN DEN DATA**<br>Bakar-bakarrik aitortuak A gakoa duenean (101 posizioa) |

Hemen jarri behar da zein egunetan hasten den aitortzaileak kontua erabili edo xedatzeko jaso duen baimena. Urtearen lau digituak jarriko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra) eta egunaren bi digituak (01etik 31ra), UUUUHHEE formatuaren arabera

Kontua erabili edo xedatzeko baimena –baimenaren ezeztapena edo deuseztapena barne– aitortzen den urtean jakinarazi edo gertatu badira, dataren bi eremuak beteko dira.

Aitortzen den urtean kontu batek hainbat baimen edo ezeztapen baditu aitortu berberaren inguruan, beteko diren erregistroak baimen bakoitzak urtearen barruan iraun dituen denbora tarteak adinakoak izango dira. Aurreko paragrafoetan esandakoaren arabera beteko dira erregistro bakoitzean dataren eremuak.

| | | |
|---|---|---|
| **193-190** | **Numerikoa** | **BAIMENA KENDU DEN DATA**<br>Bakar-bakarrik aitortuak A gakoa duenean (101 posizioa). |

Hemen jarri behar da zein egunetan kendu zaion aitortzaileari kontua erabili edo xedatzeko jaso duen baimena, edo zein egunetan deuseztatu den kontua. Urtearen lau digituak jarriko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra) eta egunaren bi digituak (01etik 31ra), UUUUHHEE formatuaren arabera.

Kontua erabili edo xedatzeko baimena –baimenaren ezeztapena edo deuseztapena barne– aitortzen den urtean jakinarazi edo gertatu badira, dataren bi eremuak beteko dira.

Aitortzen den urtean kontu batek hainbat baimen edo ezeztapen baditu aitortu berberaren inguruan, beteko diren erregistroak baimen bakoitzak urtearen barruan iraun dituen denbora tarteak adinakoak izango dira. Aurreko paragrafoetan esandakoaren arabera beteko dira erregistro bakoitzean dataren eremuak

| | | |
|---|---|---|
| **191-205** | **Numerikoa** | **AZKEN HIRUHILEKOAREN BATEZ BESTEKO SALDOA:**<br>Hemen jarri behar da zein izan den azken hiruhilekoan kontuaren batez besteko saldoa, aitortuaren gakoa zeinahi dela ere. |

Eremu hau bitan banatuta dago:

191 ZEINUA: eremu alfabetikoa. Jarri «N» kontuaren saldoa negatiboa denean. Beste edozein kasutan, eremu hau hutsune bat izango da.
192-205 ZENBATEKOA: 14 posizioko eremu numerikoa. Koma hamartarrik gabe jarri behar da kontuaren saldoa.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira.

Eremu hau bitan banatuta dago

192-203: Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
204-205: Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.

| | | |
|---|---|---|
| **206-220** | **Numeikoa** | **ABENDUAREN 31ko SALDOA:**<br>Abenduaren 31n kontuak duen saldoa jarri behar da, aitortuaren gakoa zeinahi dela ere |

Eremu hau bitan banatuta dago:

206 ZEINUA: eremu alfabetikoa. Jarri «N» kontuaren saldoa negatiboa denean. Beste edozein kasutan, eremu hau hutsune bat izango da

207-220 ZENBATEKOA: 14 posizioko eremu numerikoa. Koma hamartarrik gabe jarri behar da kontuaren saldoa

Eremu hau bitan banatuta dago:

207-218: Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
219-220: Zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.

**221-382** **Alfanumerikoa** **TITULARRAREN EDO ONURADUNAREN HELBIDEA**
Aitortuaren gakoa "A" ez denean, titularraren edo onuradunaren helbidea jarriko da eremu honetan.

Eremu hau bitan banatuta dago:

221- 270 KALEAREN IZENA ETA ETXEAREN ZENBAKIA Kalearen izen luzea jarriko da. Izen osoa ez bada sartzen, ez jarri ez artikulurik, ez preposiziorik eta ez konjuntziorik. Tituluak laburbilduta adieraziko dira (adibidez: KT=Kondea). Gainerako kasuak laburtu egingo dira erabilera orokorreko siglen arabera. Era berean, zenbakia edo puntu kilometrikoa adierazi behar da

271-310 OSAGARRIA. Beharrezkoa bada, eremu honetan jarriko da helbidea bere osoan identifikatzeko beharrezkoak diren gainerako datuak.

311-340 HERRIA/HIRIA. Helbidea kokatuta dagoen herriaren edo hiriaren izena jarri behar da.

341-370 PROBINTZIA/ERREGIOA/ESTATUA Helbidea kokatuta dagoen probintzia, erregioa, estatua, departamentua edo bestelako banaketa politiko edo administratiboa jarriko da eremu honetan

371-380 POSTA KODEA (ZIP KODE) Helbidearen posta kodea jarriko da.

381-382 HERRIALDE KODEA: Titularraren edo onuradunaren helbideari dagokion herrialde edo lurraldearen kodea jarriko da, foru agindu honen III. eranskinean ageri diren gakoen arabera

**383** **Alfabetikoa** **ERABILITAKO KONTU UNITATEA.**
Dagokion gako alfabetikoa jarriko da, kontu bankarioan erabilitako monetaren arabera:.

E Euroak
D Dibisak

**384-401** **Numerikoa** **DIRU SARREREN BOLUMEN OSOA**
Jarri, zeinurik eta koma hamartarrik gabe, urtean zehar guztira zenbat diru sartu den kontuan, eurotan. Urteko zenbateko osoa kontuaren hartzekoan egindako idazpenen batura izango da (ordainketen batura).

Eremu hau bitan banatuta dago:

384-399 Diru sarreraren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.
400-401 Diru sarreraren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.

**402-419** **Numerikoa** **DIRU-IRTEEREN BOLUMEN OSOA.**

| | | |
|---|---|---|
| | | Jarri, zeinurik eta koma hamartarrik gabe, urtean zehar guztira zenbat diru irten den kontutik, eurotan. Urteko zenbateko osoa kontuaren zorrean egindako idazpenen batura izango da (zordunketen batura). Urtean zehar kontutik ateratako funts bolumenaren zenbateko osoa adierazi behar da.<br><br>Eremu hau bitan banatuta dago:<br><br>402-417 Diru irteeraren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroz beteko da<br>418-419 Diru irteeraren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroz beteko da. |
| **420** | **Alfabetikoa** | **USTEZ ABANDONATUTA DAUDEN KONTUAK**<br>«X» jarriko da baldin eta, azaroaren 3ko 33/2003 Legean xedatutakoaren arabera, uste bada kontuak abandonatuta daudela aitortuak identifikatzeko arazoak egoteagatik. |
| **421-432** | | **ZURIUNEAK** |
| **433-452** | **Alfanumerikoa** | **IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA EGOITZA FISKALEKO HERRIALDEAN**<br>Egoitzako herrialde edo lurraldean aitortuari emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. |
| **453-460** | **Numerikoa** | **JAIOTEGUNA**<br><br>"Nortasunaren gakoa" eremuan (2. motako erregistroaren 76. posizioan) F jarri bada, aitortuaren jaioteguna adierazi behar da. Idatzi urtearen lau digituak, hilaren biak (01 - 12) eta egunaren biak (01 - 31), UUUUHHEE formatuan |
| **461-497** | **Alfanumerikoa** | **JAIOTERRIA**<br>"Nortasunaren gakoa" eremuan (2. motako erregistroaren 76. posizioan) F jarri bada, aitortuaren jaioterria adierazi behar da<br><br>Eremu hau bitan banatuta dago:<br><br>461-495 HIRIA: 35 posizio ditu. Jaioterria jarri behar da, eta beharrezkoa izanez gero, probintzia, erregioa edo departamentua<br><br>496-497 HERRIALDE KODEA: 2 posizioko eremu alfabetikoa. Jaioterriari dagokion herrialde edo lurraldearen kodea jarriko da, Foru Agindu honen III. eranskinean ageri diren gakoen arabera. |
| **498-499** | **Alfabetikoa** | **AITORTUAREN EGOITZA FISKALEKO HERRIALDE EDO LURRALDEA**<br>Aitortuaren egoitza fiskalari dagokion herrialde edo lurraldearen kodea jarriko da, Foru agindu honen III. eranskinean ageri diren gakoen arabera. |
| **500** | | **ZURIUNEAK** |

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira.
* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.